

Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Osasuna

Anatomia patologikoko eta zitodiagnostikoko goi mailako teknikaria



Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BÁTASUNA

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtsa
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Anatomia patologikoko eta zitodiagnostikoko goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

Anatomia patologikoa eta zitologia

- Anatomia patologikoko eta zitologiako laborategi bateko unitate bat kudeatzea.
- Nekropsia kliniko edo mediko legalak egiten laguntzea, fakultatibo batek gainbegiraturik.
- Material biologikoaren prozesamendu integrala eta prozesamendu osagarriak egitea, patologoak azter ditzan.
- Zitologia ginekologikoak hautatu eta haien hurbilpen diagnostikoa egitea, fakultatibo batek gainbegiraturik.
- Gorputzeko likidoak eta jarioak eta puntzio bidez lortutako inpronta eta lagin ez-ginekologikoak hautatu eta haien hurbilpen diagnostikoa egitea, fakultatibo batek gainbegiraturik.
- Pieza eta prestakinen argazki-erregistroa egitea maila makroskopikoan, mikroskopikoan eta ultramikroskopikoan, fakultatibo batek gainbegiraturik.
- Immunohistokimikako, immunofluoreszentziako eta biologia molekularreko teknikak aplikatzea, fakultatibo batek gainbegiraturik.

Osatu gabeko lanbide kualifikazioak

Tanatopraxia

- Gorputik ehunikiak, protesiak, taupada-markagailuak eta bestelako gailu kutsagarriak erauztea.

Saiakuntza mikrobiologikoak eta bioteknologikoak

- Saiakuntza bioteknologikoak egitea eta horien emaitzen berri ematea.

Analisi klinikoen laborategia

- Analisi klinikoen laborategi bateko unitate bat kudeatzea.
- Fase preanalitiko eta postanalitikoetako prozedurak laborategi klinikoan egitea.
- Giza lagin biologikoetan analisi hematologiko eta genetikoak egitea hemoderibatuak lortzeko.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional

Osasuna

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure lanbidean arituko zara osasun-sektorean, esparru publikoko organismo eta erakundeetan eta enpresa pribatuetan, bai oinarrizko osasun laguntzan, bai laguntza espezializatuan, eta ikerketa zentroetan. Lana egiten dute behar den fakultatiboak gainbegiraturik.

Hauek dira arloko zeregin eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Anatomia patologikoko eta zitologiako goi mailako teknikaria.
- Anatomia patologikoko eta zitologiako teknikari espezialista.
- Zitoteknikaria.
- Auzitegi-medikuaren laguntzailea.
- Autopsia klinikoen eta mediko-legalen autopsia-egilea.
- Tanatopraxia-egilea.
- Biologia molekularreko kolaboratzaile-laguntzailea.
- Ikerketako kolaboratzaile-laguntzailea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Lagin biologikoen kudeaketa.
- Laborategiko teknika orokorrak.
- Biologia molekular eta zitogenetikoak.
- Fisiopatologia orokorra.
- Zitologia orokorra.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Ingelesa I.
- Nekropsiak.
- Prozesamendu zitologiko eta tisularra.
- Zitologia ginekologikoa.
- Anatomia patologikoko eta zitodiagnostikoko proiektua.
- Enpresa eta ekimena.
- Lantokiko prestakuntza.